# getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1886 zk.
www.getxo.eus

Urriak 29 >> Azaroak 8 | 2026


## / Nabarmentzekoak


> Tximeletei buruzko tailerrak eta “Anfibio misioa” (2. or.)

> “Susto” XXL bertsioa, ikuskizun murgiltzailean, beldurra eta barrea erdi bana (3. or.)

> Fadurako frontoien eraikinaren etorkizuneko birmoldaketaren beharrak zehazteko prozesu parte-hartzailea amaitu da (4. or.)





*Barruko gehigarria

**45. Aste Korala.** Urriak 29 (osteguna) eta 30 (ostirala) eta azaroak 1 (igandea), 20:00etan, Muxikebarrin. Sarrera: 5 euro/kontzertuko (abonua, 12 euro).

A- GENDA

**Antzerkia.** Azaroak 7, larunbata, 20:00 h, Muxikebarrin, Kulunka Teatroren “Herentzia”. Euskaraz. Sarrera: 18 euro.

# Arene, Iturgitxi, Zubilleta eta Maidaganen komun publikoak jartzea, 2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan gehien bozkatutako proposamena

Arene, Iturgitxi, Zubilleta eta Maidaganen komun publikoak jartzea izan da 2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileen bigarren fasean boto gehien jaso dituen proposamena. Irailaren 17tik 27ra egin zen bigarren fasea. Lehenetsitako proiektuetan, aurrekontu haueta-ra bideratzen den milioi bat euro-ko urteko partida inbertituko da, ordena honetan:

1.- Arene, Iturgitxi, Zubilleta eta Maidaganen 4 komun publiko jartzea
2.- Zubilletako haur-parkea estali eta berritzea
3.- Aire zabaleko zinema udan
4.- Gazteentzako kontzertuak Muxikebarriko Arrigunaga aretoan
5.- Bizitzak salbatzen dituzten panelak instalatzea (jokabide suizida prebenitzeko kanpaina)
6.- 50 m-ko igerilekuan horma bereizgarriak eta garabi-aulki eramangarriak Faduran eta Gobelan

Sei proiektuak batuta, inbertsioa 988.300 eurokoa da.

**Prozesua**

Bigarren fase honetan 1.495 pertsonak hartu dute parte (1.493 2025ean). Horietatik 1.142k aurrez aurreko kanalen bidez parte hartu dute (2025ean 1.307) eta 353k Zeugaz online plataformaren bidez (2025ean 186). Boto baliogabeak 60 izan dira (76 iaz), beraz, baliozko ekarpenak 1.435 dira. Aurten ere bide presentzialetatik jaso da elkarte baten ekarpena, eta, beraz, 1.436 ekarpen baliodun egin dira guztira (1.417 2025ean).

Emakumeek emandako botoen %57,84 ordezkatzen dute; gizonek, gainerako %42,16; eta lehenengoen parte-hartzea handiagoa izan da, bai aurrez aurre, bai online (Zeugaz).




Adinaren arabera, onlineko portzentaje handiena (%34,8) 45-54 urtekoei dagokie, eta ondoren, 35-44 urtekoei (%25,2) eta 55-64koei (18,7%); 65 urtetik gorakoek botoen %9 inguru hartzen dute. Parte-hartze presentzialaren kasuan, 65 eta 74 urte bitarteko pertsonak dira talde ugariena osatzen dutenak (%21,6), ondoren 35 eta 44 urte bitartekoak daude (%16,7) eta, azkenik, 45 eta 54 urte bitartekoak (%15,9). Bi boto-prozedurak batuta, parte-hartzerik handiena 45 eta 54 urte bitartekoei dagokie (%20,6), eta, ondoren, 35 eta 44 urte bitartekoei (%18,8) eta 65 eta 74koei (%18,1).

| GAUZATUKO DIREN PROIEKTUAK | Puntuak paperezko formularioaren bidez | Puntuak online Zeugazen bidez | Puntu guztiak proposamen bakoitzeko | Gutxi gorabeherako kostua |
|---|---|---|---|---|
| 4 komun publiko jartzea Arene, Iturgitxi, Zubilleta eta Maidaganen | 7.945 | 2.671 | **10.616** | 270.000 € |
| Zubilletako haur-parkea estali eta berritzea | 7.192 | 2.238 | **9.430** | 300.000 € |
| Aire zabaleko zinema udan | 6.823 | 2.233 | **9.056** | 170.000 € |
| Gazteentzako kontzertuak Muxikebarriko Arrigunaga aretoan | 6.559 | 2.162 | **8.721** | 100.000 € |
| Bizitzak salbatzen dituzten panelak instalatzea (jokabide suizida prebenitzeko kanpaina) | 6.727 | 1.914 | **8.641** | 15.000 € |
| 50 m-ko igerilekuan horma bereizgarriak eta garabi-aulki eramangarriak Faduran eta Gobelan | 6.276 | 1.954 | **8.230** | 133.300 € |
| | | | | GUZTIRA: 988.300€ |

# A-GENDA

## URRIAK 29 OSTEGUNA

**45. Aste Korala.** 20:00etan, Muxikebarrin, Ensemble Vocapella Limburg (Alemania). Sarrera: 5 euro (abonua, 12 euro).

**Poesia errezitaldia.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "25-N. El orígen". Rapsoda: Carmen Martínez. Antzezleak: Luisi Landa, Minou Tavárez eta Charo Pérez. Musika: Aitor Ocina. Edukiera mugatua. Antolatzailea: Gizatiar.

**Jardunaldi mikologikoak. Hitzaldia.** 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Perretxiko toxikoak. Intoxikazioak" (gaztelaniaz). Hizlaria: Roberto Fernández. Antolatzailea: Basozaleak.

## URRIAK 30 OSTIRALA

**45. Aste Korala.** 20:00etan, Muxikebarrin, Chamber Choir Ipavska (Eslovenia). Sarrera: 5 euro (abonua, 12 euro).

**Ondarearen Europako Jardunaldiak. Teknologia eta partaidetza-tailerra.** 10:00-13:00 h, "Ondarea berpizten: 3D inprimaketa-tailerra" (gaztelaniaz). Info: 653 72 52 59 eta 3dlan@3dlan.org

## URRIAK 31 LARUNBATA

**Gau Beltz Gaztea Proiektua. Antzerkia.** "Susto: XXL bertsioa", Maite Guevara konpainiarekin, 19:00etan eta 22:00etan, Muxikebarrin. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: Muxikebarri eta Romo Kultur Etxean jasotzeko gonbidapenarekin. 22:00etarako sarrerak agortuta daude.

**Ondarearen Europako Jardunaldiak.** Ibilbide gidatua. 11:00-13:00 h, "Gure burdinazko hondartzak" (gaztelaniaz). Info: Tel: 666 85 77 61, ekobideak@gmail.com

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30 h, Eskulan jasangarriak: Gau Beltzerako farolatxoak (4 urtetik gora). Izena emateko doan: info@ingurumenaretoagetxo.eus

**Kontzertua.** 18:00etan, Algortako Kristo Eroslearen parrokian, Tenerifeko La Laguna Unibertsitateko abesbatzaren eskutik. Sarrera doan.

**Kontzertua.** 19:30ean, Romoko San José Obrero parrokian, Elkarrekin (Berriozar) eta Ondarreta (Getxo) abesbatzak. Sarrera dohainik.

## AZAROAK 1 IGANDEA

**45. Aste Korala.** 20:00etan, Muxikebarrin, Saint Angela Choir (Indonesia). Sarrera: 5 euro (abonua: 12 euro).

## AZAROAK 2 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El nuevo PGOU de Getxo". Hizlariak: Álvaro Cerezo, arkitekto doktorea jasangarritasunean eta hiri-berroneratzean, eta Natxo Tejerina, zuzenbidean lizentziatua, abokatua eta hirigintzako irakaslea. Antolatzailea: Sínope Kultur Elkartea.

## AZAROAK 4 ASTEAZKENA

**Liburu aurkezpena.** 19:00etan Algortako Kultur Etxean, "Arantzarik gabeko arrosa"-ren aurkezpena, Oihane Amantegi egilearen eskutik. Euskaraz. Sarrera dohainik.

**Dokumental zikloa.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Indabada, mende laurden herria astintzen" filmaren emanaldia. Zuzendariak: Kerman Díaz, Aritz Landeta, Asier Zamorano, María Arriaga, Jon Txokarro eta Iker Torre. Proiekzioaren ostean, solasaldia. Euskaraz. Sarrera dohainik.

## AZAROAK 5 OSTEGUNA

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Paul Urkijoren "Gaua". 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

## AZAROAK 6 OSTIRALA

**Erakusketa.** Getxoarte Beka 2026. Azaroaren 26ra arte, Romo Kultur Etxean, Julen Etxebarriaren "El tercer paisaje II" erakusketa. Ordutegia: 08:30-21:30 (astelehenetik ostiralera) eta 09:30-20:30 h (asteburuetan). **Bisita gidatua eta famila-tailerra.** Hilak 21, larunbata, 17:30etik a 19:30era.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Interview. Tentazioa". 12 urtetik gorakoentzat, euskaraz. 8 euro.

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Romo Kultur Etxean, Kleber Mendoça zuzendariaren "El agente secreto" (JBA). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

**Auzoka.** 17:00etatik 20:00etara, Santa Eugenia plazan **Jolas zirkua**, eta Aldapa parkean, **Antzerkia**. Euskaraz, 6-11 urte. Dohainik.

## AZAROAK 7 LARUNBATA

**Dantza plaza.** 19:30ean, San Nikolas Ikastolan (Algorta), herri-erromeria bertako taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Herentzia", Kulunka Teatrorekin. Euskaraz. 18 euro.

## AZAROAK 8 IGANDEA

**Haurrak-familiak.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Jirafa", Thomas Noone Danceren ikuskizuna. 3 urtetik gorakoentzat. 6 euro.

**Zinematxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Little Amélie"-ren emanaldia (euskaraz). Adin guztientzat. 2,50 euro.




**- Ingelesa** azterketa ofizialak prestatzeko eskarmentua duen lizentziadun baten eskutik. Maila guztiak. Emaitza onak. Tel.: 620 60 82 32.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazkotasunaren erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Joal Express, S.L.
Gordailu legala: BI-388-87

# Diru-laguntzak gizarte-entitaterentzat

Udalak Gizarte Kohesioaren arloko lau erakunderentzako diru-laguntzak onartu ditu.

Zehazki, Gurutze Gorriak 130.000 euro jasoko ditu adinekoen parte-hartzea eta zahartze aktiboa sustatzeko aurten antolatutako jarduerek eragindako gastuei aurre egiteko. Bestalde, Sortarazik 90.927 euro eskuratuko ditu, zailtasun sozioekonomikoak eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonei, familiei eta/edo taldeei laguntzeko jarduerak antolatzeko, Hazia eta Gazteekin programen barruan. Parte-hartze sozialeko jardueretatik eratorritako gastuak finantzatzeko, Udalak 50.000 euro emango dizkio Sarekide Getxoko Boluntariotza Erakundeen Elkarteari. Eta, Ajane Algortako adinekoentzako elkarteak 40.000 euroko diru laguntza jasoko du, aurten adinekoen partaidetza eta zahartze aktiboa sustatzeko antolatzen dituen jarduerek eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko.




## CECOBI saria Elorri burdindegiarentzat

**Txorierri, Mungialdea eta Uribe Kosta Eskualdeko Merkataritzarako CECOBI Saria jaso du Elorri burdindegiak bost hamarkadatik gorako ibilbideagatik, gertuko arretagatik eta aholkularitza espezializatuagatik. *Eskatzen duzuna ulertzen dugu eta badugu* goiburuarekin, establezimendua hurbileko merkataritzaren balioaren ordezkaria da. Marije Jiménezek Zaloa Campillo Udaleko Komunikazio zinegotziaren eta María Oriente Enriquez Algortako Dendakeko presidentearen eskutik jaso zuen saria, Euskaldunan izandako 2026ko Bizkaiko Merkataritza Sarien galan.**

# Tximeletei buruzko tailerrak

*Tximeletak ezagutuz* da larunbat honetan, urriak 31, egingo diren bi tailerren goiburua, Udal Ingurumen Unitateak antolatuta.

Lehenengoa Romo Kultur Etxean egingo da, 10:00etatik 13:00etara. Bertan, zehatz-mehatz azalduko da bilduma entomologikoen garrantzia (intsektuen eta beste artropodo batzuen bildumak), horien prestakuntza zehatza eta erabileraren etika.

Bigarren tailerra, Azkorriko itsaslabarretan izango da, 20:00etatik 24:00etara, non sitsak erakartzeko argi tranpa batzuk jarriko diren; horrekin batera, atzemandako aleak sailkatu eta identifikatuko dira, besteak beste.

Bi tailerrak Fernando Jubete entomologo eta naturalista adituak eta Xabi Buenetxea BOLUE Ingurumen Ikerketak-eko kideak emango dituzte.

Aurretiazko izen-ematea, dohainik: boluenatura@gmail.com



## "Anfibio misioa", Ingurumen Aretoko jarduera

**Larrañazubiko Ingurumen Aretoak *Anfibio misioa* doako jarduera antolatu du azaroaren 7rako (larunbata), familiei zuzenduta. Horren bidez, Getxon bizi diren anfibioak gertutik ezagutzeko eta haiek kontserbatzearen garrantziaz jabetzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Eskola Agenda 2030ean parte hartzen duten ikasleek animalia horientzat eraiki duten urmaelan egingo da jarduera. Argibide gehiago eta izen-emateak: www.ingurumenaretoagetxo.eus eta tel.: 688 883 596.**

# "Algortako Dendak Hitzez Hitz"

Algortako 32 saltokiren erakusleihoak ibilbide literario baten gune bihurtu dira 16 idazle getxotarren lanen zatiekin, Idoia Batiz artista getxotarrak eta Arteskola akademiako gazteek egindako ilustrazioekin batera. Algortako Dendak elkarteak Udalaren laguntzarekin bultzatutako ekimena da, Getxoko merkataritza eta literatura lotzen dituena *Algortako Dendak Hitzez Hitz* izenburu pean. Datorren azaroaren 6ra arte, pertsonak ibilbide literario hori egiteko aukera izango dute eta saltokietako jardueran nahiz udalerriko txoko eta paisaietan inspiratutako testuak deskubritu.

Testuen egileak: Alaitz Leceaga, Ana Iturgaiz, Borja Ortiz Gondra, Elena Moreno, Elías Amézaga, Esther Zorrozua, Fernando García Pañeda, Haizea López, Irati Elorrieta, Isabel de Naverán, J. J. Rapha Bilbao, Joseba Santxo, Laura Mintegi, Miren Larrea, Ramiro Pinilla eta Unai Elorriaga.

# Gabonetako ludotekarako izenematea

Datorren azaroaren 2tik 16ra zabalik egongo da Areetako Kukupraka ludotekak Gabonetan eskainiko dituen jardueretarako izena emateko epea. Bi txanda izango dira, bata abenduaren 24tik 30era, eta bigarrena, abenduaren 31tik urtarrilaren 5era, Romo ikastetxean, 10:30etik 13:30era, eta 36 plaza izango dira txanda bakoitzean. 2015etik 2021ra (biak barne) jaiotakoek parte hartu ahal izango dute zerbitzuan.

Azaroaren 25ean argitaratuko dituzte onartutakoen behin behineko zerrendak.



# “Susto” XXL bertsioa, ikuskizun murgiltzailean, beldurra eta barrea erdi bana

Maite Guevararen konpainiak *Susto* muntaiaren *XXL bertsioa* (Gau Beltza edizioa) taularatuko du larunbat honetan, urriak 31, Muxikebarriko Arrigunaga aretoan. Ikuskizun murgiltzale dibertigarria da, Getxo Kulturak deitutako eta 2026ko Aurrekontu Parte-hartzaileen partidaren kargura finantzatutako Gau Beltz Gaztea prozesu parte-hartzailean boto gehien jaso zituen proiektua izan zena.

Muxikebarrik izuaren gaztelu bihurtuta irekiko ditu ateak urriaren 31ko gauean. Haizea Águila, Joseba Uribarri, Jon Zumelaga eta Maite Guevara aktoreek interpretatuko dute, eta Pablo Ibarluzeak eta Borja Ruizek zuzendutako ikuskizuna da. Gazteluaren alderik ilunena aurkitzera eramango gaitu, jauzika doan esperientzia batean.

Publikoa antzokiko atean oin bat jarri bezain laster *SUSTO*ren unibertsoan barneratuko da: beldurra eta barreak zati berdinetan. Sustoak, suspensea eta sorpresak nonahi... eta arreta jarri beharko da bazter guztietan.

Emankizuna 12 urtetik gorakoentzat gomendatuta dago (adin horretatik beherakoekin joanez gero, lagunduta egon beharko dute). Konpainiak gogorarazi du nerabeentzat oso gomendatua dagoela eta oso ikuskizun egokia dela koadrilan bizitzeko.

Bi emanaldi izango dira, 19:00etan, euskaraz, eta 22:00etan, gaztelaniaz (azken horretarako sarrerak agortuta daude). Gonbidapen bidez sartu ahal izango da, lekuak bete arte, eta Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin jaso daiteke (txarteldegiko ordutegia).

# Zinemaren zikloak hastear

2026-27ko zinema denboraldia datorren astean abian jarriko da Zinemabarri (ostegunetan, 19:00etan, Muxikebarrin) eta Zinekluba (ostiraletan, 20:30ean, RKE-Romo Kultur Etxean) zikloekin.

Ostegunean, hilak 5, Paul Urkijoren *Gaua* euskarazko filma izango da **Zinemabarri**n; ondoren, R. Sorogoyenen *El ser querido* (hilaren 12an) eta Milagros Mumenthalerren *Las corrientes* (hilaren 19an). Abenduarako hurrengoak daude aurreikusita: Igor Legarretaren *Inurri itsuak* (hilaren 3an, euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin), Bi Ganen *Resurrección* (hilaren 10ean, jatorrizko bertsioan, azpitituluekin) eta Ángel Santosen *Así llegó la noche* (hilaren 17an, jatorrizko bertsioan, azpitituluekin).

**Zinekluba** ostiralean, hilak 6, hasiko da Kleber Mendonça Filhoren *El agente secreto* filmarekin, eta berritasun gisa hilean behin jatorrizko bertsioan azpititulatutako zine klasikoa izango da. Lehen hitzordua abenduaren 11n izango da, Marcel Carneren *El muelle de las brumas* (1938) lanarekin. *El agente secreto* lanaren ondoren, azaroan Isabel Coixeten *Tres adioses* lana izango da ikusgai (hilaren 20an). Abenduan, aipatutako klasikoaz gain, David P. Sañudoren *Azken erromantikoak* (4an, euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin) eta Ana Cazenaveren *Love Me Tender* (18an) proiektatuko dituzte.

**Zinematxiki** (12:00etan, Muxikebarrin) azaroaren 8an, igandean, hasiko da eta **Haurrentzako Igandeko Zinema** (RKEn, 17:00), abenduaren 20an, igandean. Gainera, **Dokumental Zikloa** izango da berriro RKEn.



## “El peso de la luz”, giza egoera aztertzen duten kontakizun eta ipuin laburren bilduma

**Aurelio Gutierrez Cid idazle getxotarrak *El peso de la luz* aurkeztu du Algortako Kultur Etxean. Hogeita hamar kontakizun intimo eta poetiko biltzen dituen antologia da. 2025aren hasieran argitaratuta, lanak giza izaeraren konplexutasunetan sakontzen du, desoseguaren kontzeptuaren bidez, eta egileak ez du hori galga gisa ikusten, hazkunde pertsonalerako ezinbesteko motor gisa baizik. Liburua Eguberri garaiko dualtasunean girotzeagatik nabarmentzen da – bakardadea, malenkonia eta itxaropena elkarrekin bizi dira –, bai eta epaiketa moralei uko egiteagatik ere, irakurleek pertsonaien argi eta itzalekin emozionalki konektatzea bilatuz, enpatia hutsetik abiatuta. Aurelio Gutiérrez udalerriko kultur eszenarekin lotura handia duen idazlea da, eta Kontularien Klubeko kronista ofiziala da.**



## “Indabada, mende laurden herria astintzen” filmaren proiekzioa Romo Kultur Etxean

**Romo Kultur Etxeak Getxo Kulturak antolatutako ziklo dokumental bat hartuko du, datorren asteazkenean, azaroak 4, 19:00etan hasiko dena, *Indabada, mende laurden herria astintzen* filmaren euskarazko emanaldiarekin. Kerman Diazek, Aritz Landetak, Asier Zamoranok, Maria Arriagak, Jon Txokarrok eta Iker Torrek zuzendutako dokumental honek Algortako babarrun herri ekimenaren lehen 25 edizioen kronika jasotzen du. “*Beti izan da eta da herri bazkari bat baino askoz gehiago. Herri eredu desberdin baten isla eta herri eta komunitate balioen transmisioan oinarritutako proiektu batek belaunaldi asko inplikatu ditu herrian, eta hori guztia kontatzeko unea izan da hogeita bosgarren urteurrenean*”, diote. Proiekzioa doan izango da eta ondoren solasaldia egingo da.**

# Fadurako frontoien eraikinaren etorkizuneko birmoldaketaren beharrak zehazteko prozesu parte-hartzailea amaitu da

Thinking Fadura partaidetza-prozesuaren testuinguruan, kirol kluben eta Getxo Kirolak-en ordezkari gisa 40 pertsona inguru aritu dira lanean urrian, TikiToki Zentroan egindako bi saiotan, frontoien eraikinaren etorkizuneko birmoldaketak izango dituen beharrak zehazten. Aurrez aurreko topaketetan egindako ekarpenez gain, 70 proposamen baino gehiago jaso dira Getxoko Zeugaz partaidetza-plataforma digitalaren bidez.



Adostutako irizpide orokorren artean, lehentasuna emango zaie balio anitzeko kirol-instalazioei, eta, beraz, modalitate desberdinak egitea errazten dutenei. Era berean, eraikinak aldagelak, atsedenerako eta itxaroteko guneak, bilera-gelak eta gimnasio bat eskaini beharko ditu, erabilera partekatuko printzipio horri berari jarraituz.

Eraikinak hartu beharko lituzkeen ekipamendu zehatzei dagokienez, estrategikotzat jo dira skatepark bat eta eskalada-instalazio bat (boulder), getxotarren eskariari erantzuteko. Izan ere, gaur egun beste herri batzuetara joan behar dute ekipamendu estalietan kirol horietaz gozatu ahal izateko. Gainera, proiektuak hiru pilotaleku izan beharko lituzke, euskal pilotaren modalitate desberdinak praktikatzeko aukera emango dutenak eta beste kirol batzuekin erabilera partekatu ahal izango dutenak; baita gainerako espazioak diseinatu ere, erabilera anitzekoak izan daitezen eta, besteak beste, arku-tiroa, mahai-tenisa, badmintona, patin-hockeya, boxeoa, gimnastika erritmikoa edo zirkua har ditzaten.

Bi lan-saioetan, argiztapenari, baldintza akustikoei, erabiltzaileentzako aparkalekuen optimizazioari, mugikortasun jasangarriaren aldeko neurrien inplementazioari eta eraikinerako sarbideen hobekuntzari eta modernizazioari buruzko beharrak ere aztertu dira.

Partaidetza-fase hori amaitu ondoren, Getxo Kirolak-ek baliozkotu beharko ditu, teknikoki, antolamenduz eta aurrekontuz, kirol-espazioei eta horien erabilerei lotutako proposamenak, etorkizuneko aurreproiektua lantzeko aurrera egin aurretik.

# Olatu erraldoiko Punta Galea Challengearen lehiarako itxaronaldiaren hasiera

Olatu erraldoien espezialitateko lehen lerroko munduko surflariak Red Eléctrica Punta Galea Challenge delakoaren edizio berri baterako deiaren zain egongo dira, datorren azaroaren 1etik datorren urteko apirilaren 30era.




Udalaren laguntza duen txapelketaren aurkezpena joan den asteartean, hilak 27, egin zen Fadurako TikiToki Zentroan. Ekitaldian izan ziren Amaia Agirre alkatea, Antonio González, Red Electricako ordezkaria, Adrián Fernández de Valderrama, ekitaldiaren antolatzailea, Natxo González surflaria, *Ride of the Year* sariaren irabazlea, eta Sol Borelli rider kanariarra.

Ekitaldi hau Europako luzeena da, hogei urteko historiarekin. Nazioarteko hamabi surflari eta bertako hamabi gizonezko eta emakumezkoen sei surflari elkartuko ditu, euren arteko final batera zuzenean joango direnak. Hawai, Hegoafrika, Txile edo Estatu Batuetako lehiakideak espero dira, besteak beste.

Probak zortzi ordu inguru iraungo du, eta hori ere erronka bat da parte-hartzaileentzat. Galeako itsaslabarrean hogei mila lagun inguru bilduko dira. Zehaztasunez aztertuko dira depresioak eta iragarpen meteorologikoak, itsasoaren, haizearen eta olatuen baldintza egokiak konbinatuko dituen eta 6 metro inguruko olatu erraldoiak iragarriko dituen parte perfektua bilatuz. Antolatzaileek txapelketa honetan bikaintasuna bilatzen dute, itxaronaldia luzatuz.

Lehiaketa sistemak aurreko edizioko bera izaten jarraituko du.

30.000 euro banatuko dira saritan, eta haien artean ekitatez banatuko dira.



## Belaren IV. CDCP Garaikurra Abrako uretan

**Laugarren ediziora iritsiko da Clínica Dental Carmen Parra (CDCP) bela Saria larunbat honetatik aurrera, urriko azken eguna, eta beste hiru jardunaldiz, Abrako uretan, Marítimoko Klubak (RCMA-RSC) antolatuta, elkarte horren proben egutegiaren azken zatiari aurre egiteko. Beraz, Regata, Kurtzero eta J80 klaseetako ontziek azken aurreko hitzordua dute, Gallo Estropada klasikoaren aurretik.**

# Xake txapelketa TikiTokin

Fadurako TikiToki Zentroa aukeratu du Getxoko Xake Klubak III. Halloween Getxo Xake Txapelketa ospatzeko, igande honetan, azaroak 1.

Eskola-txapelketa honek lau kategoria ezarri ditu: 10 urtez azpikoa, 12 urtez azpikoa, 14 urtez azpikoa eta 18 urtez azpikoa. Antolatzaileek 100 lagunera mugatu dute parte-hartzaileentzako plaza kopurua. Aukeratutako joko-sistema *suitzarra* deritzona da, eta 5 edo 6 txanda jokatzen dira, jokalari kopuruaren arabera. Jardunaldia 10:00etatik 13:00etara egingo da, gutxi gorabehera.

Izen-ematea doakoa da: clubajedrezgetxo@gmail.com

